

ZER EGINGO DUZUE PRODUKTUA EDO ZERBITZUA BEZEROENGANA HELARAZTEKO?

Gure produktua eta zerbitzua bezeroengana helarazteko zenbait gauza egitea pentsatu dugu, baina herritarrak gehiago birziklatzea izango da gure helburua. Alde batetik, gure zerbitzua ezaguna egiteko Durangotik zehar publizitatea egitea erabaki dugu. Hau da, zenbait kartel erakargarri jarri ahal ditugu herritik zehar eta horrela jendearen arreta izango dugu guk eskaintzen dugun zerbitzuarengan. Beste aldetik, gure produktua beste enpresa batzuetara saltzeko, hau da, guk bildutako plastikoa, enpresa haiekin kontaktuan jartzea erabaki dugu haiei gure helburua eta proiektu honen onurak gizarterako aurkezten. Hau eginda, uste dugu enpresa horrek guri erosiko digula plastikoa beste enpresa batzuei erosi beharrean, gure plastikoa inpaktu on bat izan duelako Durangon.